



GIZA ESKUBIDEEN LANKETA IKASTETXEETAN

2022 - 2023

eskubidez

baketik
ERALDATZE PROZESUA, ETIKA
HARTUTA ABIAUNTU
PROCESOS DE TRANSFORMACIÓN
CON SENTIDO ÉTICO

bakeola
EDE

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

GIZA ESKUBIDEEN LANKETA IKASTETXEETAN

ESKUBIDEZek, Giza Eskubide eta Bake hezkuntzaren elkarten foroak, sustatua

Baketik Fundazioa eta EDE Fundazioa-*Bakeolak* burutua

2022-2023

1. Testuingurua eta aurkezpena

Eskubidez-ek, Giza Eskubide eta Bake hezkuntzaren elkarten foroa osatzen dugun elkartegintzako eragileok, partekatu dugu hurrengo kezka edota gogoeta hau: **Euskadi mailan eskola ezberdinek elkartegintzatik datozen giza eskubideen (GGEE) inguruko lan proposameneren eskaintzei ez diete beti ere era positiboan erantzuten**, eta badirudi eskolak gainezka egongo lirakeela horrelako proposamen mordoaren aurrean. Era berean, badirudi ere irakaslegoak, aldiz, senti dezakeela zenbait gai landu ahal izateko ez duela lortzen behar adina laguntza edota trebakuntza, ez duela bere burua gai edo prestatua ikusten, ez duela nahikoa denbora bere ikasgairako eta hortaz, zaila egiten zaiola horrelako ekimenak sustatzea, edo gutxiengo batek ere uste du ez duela bere arloarekin loturarik (bereziki DBH eta batxilergoko mailetan).

Egoera honen aurrean hartu beharreko erabaki edota egin beharreko aldaketak hobeto errotu ahal izateko, **datu bilketa egin beharra ikusi dugu eta ikerketa bat bideratu dugu**, ikastetxe arloko eragile nagusien ikuspuntua gureganatu ahal izateko.

Epe mugaketa dela eta, kontziente gara ikerketa honek ez duela bere osotasunean, sistematikoki eta era sakon batean lortu zitzakeen datuak biltzeko aukerarik izan, eta lehenengo eta oinarritzko datu-base eta ondorioen eraikuntzan kokatu gara.

2. Ikerketaren nondik norakoak

- Egun Euskadi mailan eskoletan bideratzen den giza eskubideen inguruko ekintzen nondik norakoen berri izan.
- Irakaslegoaren aukera, zailtasun eta beharren berri izan.
- Aurrera begira, GGEE arloan lantzeko kontutan izan beharreko gakoak jaso

3. Ikerketaren azken funtsa

Aurreko datuen bilketa eta ondorioen eraikuntzak, ahalbidetuko du:

- Euskadi mailako hezkuntza sistemen beharrei hobeto erantzutea
- Elkartegintzatik egiten diren hamaika ekintzak hobeto kokatzea eta proposatzea
- Ikastetxeetan GGEEei dagokionean, zein arlo lantzen den gehien, zein gutxien eta erabaki horien arrazoiak ezagutzea
- Eragile ezberdinen arteko koordinazio hobea sustatzea
- Giza eskubideen hezkuntza gure eskola sisteman hobeto bermatzea

4. Metodologia

Ikerketak alde kuantitatiboa eta kualitatiboa bildu ditu bere baitan: inkesta baten bidez (online sistemaren bidez eta gehigarrian txertatu da) EAEko 3 sare-perfil ezberdinetako 93 irakasle eta hezkuntza profesionalen ikuspuntua bildu dugu. Kasu batzuetan ikastetxe bereko hainbat irakaslek erantzun dute.

Probintzien arabera:

- Arabako 9 ikastetxeko 11 irakaslek-arduradunek
- Bizkaiako 28 ikastetxeko 37 irakaslek-arduradunek
- Gipuzkoako 40 ikastetxe-hezkuntza zerbitzuetako 45 irakaslek-arduradunek

ARABAKO Ikastetxeen izenak	Ikastetxe perfila
1 Adurtza Ikastola	Eskola publikoa
2 Amaurre ikastetxea	Kristau Eskolako kide
3 Carmelitas Sagrado Corazón	Kristau Eskolako kide
4 Corazonistas	Kristau Eskolako kide
5 Gamarra Ostalaritza LHII	Eskola publikoa
6 Gobeia Eskola	Eskola publikoa
7 San Martin Ikastetxea	Eskola publikoa
8 Unamunzaga Ikastetxea	Eskola publikoa
9 Zabalgana HHLH	Eskola publikoa

	BIZKAIKO Ikastetxearen izena	Ikastetxe perfila
1	Aixerrota BHI	Eskola publikoa
2	Antzinako Andra Mari	Kristau Eskolako kide
3	Arangoiti	Eskola publikoa
4	Areatza HLHI	Eskola publikoa
5	Arteagabeitia HLHI	Eskola publikoa
6	Begoñako Andra Mari Ikastetxea Sestao	Kristau Eskolako kide
7	Berrio-Otxoa Ikastetxea	Kristau Eskolako kide
8	Betiko Ikastola	Ikastolen Federazioko kide
9	Botikazar BHI	Eskola publikoa
10	Burdinibarra BHI	Eskola publikoa
11	Calasancio - Escolapios	Kristau Eskolako kide
12	Claret Askartza ikastetxea	Kristau Eskolako kide
13	Gernika BHI	Eskola publikoa
14	Gurutzeta HLHI	Eskola publikoa
15	Ibaizabal	Eskola publikoa
16	IES Arratia BHI	Eskola publikoa
17	IES Balmaseda BHI	Eskola publikoa
18	Karmengo Ama	Kristau Eskolako kide
19	Lekeitio BHI	Eskola publikoa
20	Maristak Bilbao	Kristau Eskolako kide
21	Maristak San Miguel	Kristau Eskolako kide
22	Nikolas Larburu	Eskola publikoa
23	Ntra Sra del Pilar Blibao	Kristau Eskolako kide
24	San Antonio ikastetxea	Kristau Eskolako kide
25	San José	Kristau Eskolako kide
26	Santa Maria del Socorro	Kristau Eskolako kide
27	Tomas Camacho HLHI	Eskola publikoa
28	Txomin Aresti HLHI	Eskola publikoa

	GIPUZKOAKO Ikastetxeen izenak	Ikastetxe perfila
1	Aginaga Herri Eskola	Eskola publikoa
2	Aita Iparragirre HLHI	Eskola publikoa
3	Aitor Ikastola	Eskola publikoa
4	AransGI Bergara	Besterik
5	Arantzazuko Ama Ikastola	Eskola publikoa
6	Belaskoenea HH LH	Eskola publikoa
7	Bizarain BHI	Eskola publikoa
8	Egape Ikastola BHI	Eskola publikoa
9	Egiluze Hijas de la Cruz Errenteria	Kristau Eskolako kide
10	Egiluze Hijas de la Cruz Hondarribia	Kristau Eskolako kide
11	Eguzkitza BHI	Eskola publikoa
12	FEJ Herrikide	Kristau Eskolako kide
13	Haztegi ikastola	Ikastolen Federazioko kide
14	Hegoa HLHI	Eskola publikoa
15	Herrikide Eskolapioak	Kristau Eskolako kide
16	HERRIKIDE-Jesuitinak	Kristau Eskolako kide
17	Hirubide Bhi	Eskola publikoa
18	Intxaurrondo ikastola	Eskola publikoa
19	Iraurgi Ikastetxea	Kristau Eskolako kide
20	J.A. Muñagorri HLHI	Eskola publikoa
21	Juan Zaragueta IPI	Eskola publikoa
22	La Anunciata ikastetxea	Kristau Eskolako kide
23	La Asunción ikastetxea	Kristau Eskolako kide
24	La Salle - Legazpi-Zumarraga ikastetxea	Kristau Eskolako kide
25	La Salle Berrozpe Andoain ikastetxea	Kristau Eskolako kide
26	la Salle Donostia	Kristau Eskolako kide
27	La Salle Zarautz	Kristau Eskolako kide
28	Langile Ikastola	Eskola publikoa
29	M.Larramendi ikastetxea	Kristau Eskolako kide
30	Pello Errota HLHI	Eskola publikoa
31	Sagrado Corazón Telleri-alde ikastetxea	Kristau Eskolako kide
32	Salesianos Urnieta	Kristau Eskolako kide
33	Samiela Ikastetxea	Kristau Eskolako kide
34	San Martin herri eskola	Eskola publikoa
35	San Miguel ikastetxea	Kristau Eskolako kide
36	Txirrita Ikastetxea	Eskola publikoa
37	Xabier Munibe Azkoitiko Ikastola	Eskola publikoa
38	Zarauzko Berritzegunea	Besterik
39	Zumaiena	Kristau Eskolako kide
40	Zurriola Ikastola	Ikastolen Federazioko kide

Ondoren, **ekainak 14ean** tailer bat burutu dugu online **7 ikastetxeren ikuspegi bateratua** entzuteko. Saio honetan, perfil edo sare ezberdinetako ikastetxeetako kideek parte hartzen dute:

- Bizkaiko
 - Barakaldo Institutoa- Eskola publikoa
 - Gaztedi Ikastola- Ikastola
 - Arratia BHI- Eskola Publikoa
 - Berrio-Otxoa ikastetxea-Kristau Eskola
- Gipuzkoako
 - Langile Ikastola- Eskola Publikoa
 - La Salle Zarautz- Kristau Eskola
 - Zumaiena- Kristau Eskola

Azkenik, burutu ditugun **6 elkarrizketa pertsonalizatuen bidez** ere, **ikuspegi kualitatiboa** jaso dugu, sakontasuna bilatuz, bai eta euren arteko kontraste lana eginez.

- Bizkaiko:
 - Antzinako Andre M^a ikastetxea- Kristau Eskola
 - IES Unamuno- Eskola Publikoa
 - Somorrostro Irakas-gunea – Kristau Eskola
- Gipuzkoako:
 - Donostiako Jesuitak – Kristau Eskola
 - Herrikide Ikastetxea- Kristau Eskola
 - Zarauzko Berritzegunea

Lehen (LH) eta Bigarren Hezkuntza (DBH) kontutan izan ditugu ikerketan, eta Euskadiko ikastetxeei zabalduta egon da (eskola publikoak, ikastolak, kristau eskolak...). Batxilergoan ere esperientzia duen ikastetxe bat ere aintzat hartu dugu. **Berritzeguneen ikuspegia** ere barne sartu dugu, hezkuntza sisteman duten kokapena dela eta, informazio iturri ezinbestekoa izan daitekeelako eta elkarrizketa sakon bat ere burutu dugu erakunde honetako kide bati ikuspegia osatze aldera.

Emitza guztiekin Baketik Fundazioa eta EDE Fundazioa-*Bakeolak* ondorioak atera ditugu, eta txosten honetan jasotzen dira.

5. Inkestaren bidez lortutako emaitzak


2023ko urtarrila eta martxoa bitartean Euskadi mailako eskola eta ikastetxeei bidali zaie emaitzez, bertan bere hezkuntza zentroan giza eskubideen inguruko lanketaren berri emateko hainbat galdera biltzen ziren. Horien artean gehiengoa aukeraketa galderak ziren; era horretan, emaitzak bateragarriak izan zitezkeen, eta amaieran, aukera ematen zitzaizen ñabardurak gehitzeko, erantzun zabalagoak emateko tartea eskaintzen baitzen.

5.1. Hezkuntza zentroyen nondik-norakoak: oinarritzko datuak

Guztira, **93 erantzun** jaso ditugu eta, nahiz eta Euskadiko **hiru lurraldeetako erantzunak** jaso, nabariak izan dira Gipuzkoatik jaso ditugun emaitzen kopurua: 45 partehartzaileek Gipuzkoan egiten zuten lan, lortutako emaitzen ia erdia izanik (%48,4). Gero, 37 erantzun jaso dira Bizkaiatik (%39,8) eta 11 inkesta bete dira Arabako eskoletatik (%11,8).


Desoreka hori dela eta, zenbait galderetan zehazki aztertuko da ea desberdintasunak ere ematen diren erantzuteko moduetan, lurraldea dela eta.

Lurraldea



Lurraldeaz aparte, **interesgarria zen sare-perfil ezberdinetako ikastetxeek eta irakasleek parte hartu izana, nahiz ez dugun lortu denengandik erantzun maila berdina izatea**. Grafikoan ikusi daitekeen bezala, partaideen artean bi multzo nabarmendu dira: eskola publikotik jasotako erantzunak izan dira %48,4a, 45 erantzun izanda. Jarraian, kristau eskolako kideak datoz, 43 partehartzaileekin, eta %46,2a osatuz. Aldiz, ikastolen federazioko kideen 3 erantzun besterik ez dira jaso¹.


Ikastetxe mota



¹ Saiatu arren, ez dugu arduradun zuzen batekin hitzegitea lortu eta agian horrek eragin du

Ikasmailak kontutan hartuta, **partehartzaileen %40,9ak, bi etapak, LH eta DBH**, hartzen dituzte bere hezkuntza sistemaren barne. **Heren bat Lehen Hezkuntzako** erantzunak dira, eta ia laurden bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik datoz.

Ikasmailak




7

5.2. Giza Eskubideen lanketa

Inkestaren lehenengo galderak zuzenean ekiten zion gaiari eta irakaslegoari galdetzen genion ea beraien ikastetxeetan giza eskubideen alorra lantzen ote zuten ikasleekin. Erantzuna oso positibotzat jo behar dugu: 85 kideek lanketa hori bideratzen dutela aipatu dute, jasotako erantzunen %91,4a. Beraz, argi dago **Euskadi mailan derrigorrezko hezkuntzan giza eskubideen errealitatea nolabait jasotzen dutela ikasleek.**

Giza Eskubideen alorra lantzen duzue ikasleekin?




Alor horretan ekintzaren bideratzen ez dituztenak 8 izan dira, eta oro har, beraien erantzun kualitatiboak ikusita, argi geratzen da ere "ezezko" horrek ez duela zertan erakutsi nahi eskola horrek ez duela giza eskubideen alorrean ezer ere egiten. **Ezezkoa aukeratu zutenen artean jasotako erantzunek islatzen dute nolabait aipatzen direla eskubide horiek, baina ez lanketa sakon batean:** *zeharka lantzen dugu, baina zuzenean ez; errespetua, etab. lantzen ditugu, baina ez espezifikoki; Giza Eskubideak aipatzen dira baina ez sakonki landu; haur hezkuntzan lan egiten dut apur bat ginetik landu egiten dugu baina ez dugu asko sakontzen, etab.*

Horiekin batera, ikusten dira ere sortu daitezkeen **arazoak edota oztopoak**. Besteak beste, gaitzerrenda zabala edota betebeharrei erantzun beharra (selektibitatea, adibidez). Bestetik, formakuntza falta ere aipatu da partaideen artean, edota giza eskubideen alorra zenbait ikasgai

espezifikoetan txertatzeko zailtasuna (adibidez, biologia edota geologia aipatu dira). Hainbatetan, beraz, formakuntzak edota material gehiagoren beharra aipatzen da.

Giza Eskubideak lantzen dituen gehiengora bueltatuz, interesgarria zen guretzat ere ondo kokatzea GGEE inguruko beraien deskribapena edota gerturapena. Horretarako horren baitan egon zitekeen alor ezberdinen zerrrenda eskaintzen genuen:

Giza Eskubideen artean zeintzuk lantzen dituzue?



Erantzunen arabera, beraz, hauek dira egun Euskadi mailan gehien lantzen direnak:

- **Diskriminazioa, generoa barne, %92,9** eskoletan lantzen da.
- Nahiko gertu, **giza eskubideen ezagutza orokorra** izango genuke, erantzunen **%89,4**arekin.
- Beste motako diskriminazioen artean:
 - **Arrazakeria** dator gero **%87,1**ekin, ijitoek edota jatorri ezberdinetako kideek pairatutako diskriminazioa barne.
 - Horrekin batera, **migrante eta errefuxiatuen eskubideek %74,1**ko kopurua lortu dute.
 - **LGTBI+** taldearen inguruan ematen den diskriminazioa **%83,5**an lantzen da.
 - Aldiz, **gaitasun fisikoa edota funtzionalarekin loturiko diskriminazioa** ez da horren ezaguna eta eskolen **%70,6**an lantzen da. Baina, hala ere, 4 ikastetxetik ia 3k lantzen dute arlo hau ere.
- **Ikasteko eskubidearen inguruko lanketak** ere ematen dira eskoletan, **%75,3**ko erantzunarekin.


Esanguratsua da, aldiz, Euskadiko eskoletan zaila dela oraindik gaur egun **motibazio politikoagatik eman den indarkeria edota terrorismoaren inguruan** lan egitea: jasotako erantzunen artean 25ek besterik ez dute aukeratu lan-ildo bezala, **%25,9**a, hain zuzen.

Lurraldeka aztertuz, ez dira ezberdintasun esanguratsuak jaso, eta jasotako kopuruek oro har bat egiten dute jasotako inkesten lurraldekako banaketarekin. Aldiz, eskola motari begiratzen badiogu, esanguratsua da motibazio politikoaren indarkeria lantzen dutenen artean **%66,66**a Kristau Eskola bateko partaide dela, beste eskola motekiko alde nabaria erakutsiz.

Beraz, **orohar gutxi lantzen da Euskadiko ikastetxeetan indarkeria politikoak eragindako giza eskubideen urraketa**, egun, gure inkestari erantzun dieten eskolen artean, laurden batean bakarrik lantzen delarik.

Giza eskubideen ezagutzaren inguruan **alderdi teorikoak edota gaitasun praktikoak** landu daitezke. Horri erantzunez, **%57,6**ak aipatzen du biak lantzen dituztela.


Giza eskubideen ezagutza zertan datza?



9


Ezagutza motan ere baldintzapen bat ikasketa zikloak edota adinak marka dezake. Baina orohar, jaso dugun erantzunen arabera, **%67,7an bi zikloetan modu berdintsuan lantzen dira** giza eskubideak, bai lehen hezkuntzan, bai eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan ere.

LH eta DBH mailak dituzuen ikastetxeetan, Giza Eskubideak lantzeko orduan, etapek garrantzia al dute?



Gure analisisian aurrera eginez, giza eskubideen errealitatea zein testuinguru geografikoari lotuta lantzen zuten galdetzen genuen. Horretan, gehiengoak adierazten du **GGEE urraketak bai hemen bai eta atzerrian lantzeko joera dutela**, %77,1k horrela erantzun baitu. Bertakoak gailentzen dituztenak %21,7a osatzen dute.

Nongo Giza Eskubideak lantzen dituzue?



Erantzun argia ere jaso da formatoari dagokionean: parte hartu dutenen **%78,6**ak giza eskubideen gaiak **tutoretza planetan edo kurrikulumaren baitan dituzte dagoeneko sartuta**, eta erantzun horri arreta emanez, ondorioztatu beharko genuke Euskadi mailan, oro har, eskoletako muinean GGEE sartuta egongo zirela.

Eskoletako ia erdiek (%45,2) urteko **egun seinalatueta**n lantzen dituzte giza eskubideak, eta **heren batek (%33,3)** urtean zehar programa gisa sustatzen dute lanketa hori.


Giza Eskubideak lantzen ditugun formatoa:



10

Aurreko baieztapena azpimarratuz, jasotako erantzunen artean, gehiengo argiak aipatu du **giza eskubideen lanketa eskola osoaren apustu irmoa dela, %89ko** erantzunak jasoz. 9 pertsonak besterik ez dute esan GGEE lanketa irakasle bakoitzaren lehentasunaren pean geratzen denik.


Giza Eskubideak lantzen dira



Baina nola eta zeinekin lantzen dira orduan giza eskubideak? Argi dago, **%94,1ko** erantzunarekin, **eskolek dituzten euren baliabideekin aurrera egiten dute**, ikastetxearen baitan topa daitezkeen giza baliabideak ere barne.


Kopuru horretatik oso urrun, eskolen **ia erdiak (%48,2)** badu **elkarte/eragile batekin lankidetz**a prozesuren bat, eta beste talde esanguratsu batek (**%44,7**) aipatzen du **elkarrekin bidalitako materialak erabiltzen dituztela, baina bere kabuz martxan jartzen dutela**.

Giza eskubideak lantzen ditugu:



baliabideak horren garrantzitsuak direnez, jakin nahi genuen ea beraien **burua nahiko formatua** ikusten zuten gaiari ekin ahal izateko. Honetan erantzunek ere islatzen dute **Euskadi mailan gehiengoak gaitasun nahiko duela, %75,3ak** horrela azaldu baitu. Ia %13a, aldiz, ez da oso ziur sentitzen gai horiek jorratu behar duenean.

Giza Eskubideen arloa klasean zuen ikasleekin jorrazteko, zenbateko formakuntza/prestaketa edo gaitasuna duzuela uste duzu?




11

Esan bezala, erantzunen ia erdiak adierazten zuen elkarrekin bidalitako materialak erabiltzen zituztela, baina bere kabuz, eta beste erdiak aipatzen zuen elkarrekin batekin zuzenean egiten zutela lan. **Baliabide horien bere balorazioaz galdetuta**, irakasleek esan dute materialak bere beharretarako egokitu daudela, %56,4ko erantzunekin.

Laurden batek dio programa edota **baliabide gutxiago jasotzen dituztela (%25,6)**, eta horren parean, **bost erantzunetatik batek dio aldiz baliabide gehiago jaso egin direla (%20,5)**.

Jasotzen dituzuen baliabideen balorazioa



Aurrera begira, **Elkarrekin egiten duten lana esker onez baloratu** ondoren, ikastetxe askok **begi onez hartzen dute elkarrekin lan eta hurreratzeko baliabideak**. Askoren mezuak ildo honetatik doaz: *“Gure ustez, ondo dago”, “lanean jarraitzeko orain arte egiten ari diren bezala”, “eskolekin lanean jarraitzea”, “Mila esker egiten duten lanagatik”, “Eskatu ez nieke ezer eskatuko. Eskerrak emango nizkieke gai honi buruzko sentsibilizazioarengatik eta animo guztiak beraien esku dagoen hori ilusioz egin dezaten. Lanean berdin jarraitzea. Mila esker egiten duten lanagatik” eta antzeko mezuak.*

Ikastetxe askoren ordezkariak **hainbat aipamen eta proposamen ere luzatzen dituzte** eta 4 multzo handietan multzokatzen saiatu gara erabilgarriagoa eta argiagoa izan daitezen ekarpenak:

BALIABIDE PEDAGOGIKO EGOKIAK. Egindako ekarpen eta proposamen gehienek, arlo hau aipatzen dute. Bereziki, ikastetxeetara errazten diren baliabide, programa eta proiektuekiko hobekuntza eta hausnarketak izan dira hizpide:

- Abiapuntua:
 - Egungo haur eta gazteen errealitatetik abiatzea (ez baita bera lurralde, herri eta eskola guztietan).
 - Ikastetxeetako kurrikulumarekin bat datozenak, ikasgaietan eta eskolako programaziotara erraz txertatzekoak izatea komeni da.
- Adina: Adin eta ziklo bakoitzari egokitutako baliabideak (adinak zehaztuz).
- Formatoa: unitate didaktikoa, marko teorikoarekin eta berau modu didaktikoan azalduz egotea.
- Metodologia: klasean lantzekoa izan dadila, erraza, simplea, dinamikoa, praktikoa, behar dituen baliabide guztiekin eta testigantzak jasotzen dituen.
- Formazioa: baliabide hauek garatzeko eta oinarrizko ezagutzak gogorarazi edo ikasteko oinarrizko trebakuntza saioak bideratzea irakasleentzat.
- Eskuragarriak:
 - Modu errazean topatzea programa eta beharrezkoak diren baliabideak
 - Baliabideen gida bat

GGEE ERREALITATEAN TXERTATUAK. Hainbat ikastetxeetatik egindako proposamena zuzenagoa da. Beharra nabaritu dute **GGEEak lantzea egunerokotasunetik, hau da ikastetxeen bizikidetzan txertatzea eta ikas komunitateko kideen jarreretatik abiatzea** hausnarketa eta eraldaketa:

- Ikastetxeen eguneroko gaiekin lotzea proposatzen dute.
- Ikastetxeko eguneroko gatazken inguruan kokatzea, egoera horiek kudeatzen ikasteko jarduerak erraztea.
- Ikastetxeko ikasle, irakasle eta familiekin dauden gatazkak bideratzeko orientabideak erraztea, komunikazioa hobetzeko.
- Pandemia berak eragindako egoerak aztertzeke balio dezan baliabideak sortzea; izan ere, azken hiru urtetan pandemia dela eta eskubide eta askatasun asko urratu dira herrialde askotan, baita gurean ere, eta horiek aztertzea, materiala egotea horren inguruan, pentsamendu bakarra ez egotea arlo honetan eta oso interesgarria litzateke iritzi desberdinak heltzea ikastetxe eta ikasleengana. Proposamena beraz, gai unibertsal hauen inguruan hausnarketa egitea litzateke.

PLANIFIKAZIOA eta KOORDINAZIOA: Ikastetxe batzuk zuzenean iristen omen zaizkie baliabideak, beste batzuei ordea gutxiegi. Hala ere hainbat ideia hurreratu dituzte guzti hau hobeto antolatzeko

- Urte osoan zehar landu ahal izateko baliabideak erraztea (ikastetxe bakoitzak erabaki dezan noiz bidera dezakeen). Baina hoberena ikasturte hasieran jasotzea, urteko plangintzan txertatu ahal izateko.

- Eskoletako egutegiak aintzat hartu programak eskaintzen direnean (ebaluaketa garaia ez baita onena baliabideak jasotzeko).
- Bateratuak eta koordinatuak
 - Egun seinalatu batzuetarako baliabide askotxo eta beste egun batzuetarako zailtasunez topa daitezke baliabideak.
 - Elkarteen artean koordinazioa handituz, baliabideak bateraturik bidaltzea.

ESKOLA-ELKARTEAK GERTURATU. Ikastetxe dezentek aipatzen dute baliabide hauen garapena hobetze aldera, elkarteen zuzeneko eskuhartzea ere eskertuko luketela. Hala nola:

- Zuzeneko lekukotzak emango dituzten pertsonak klasera etortzea begi onez hartuko lukete. Beraien bizipenak partekatzeko prest daudenak zuzenean entzuteak eragin handiagoa izaten duela uste dute. Horrelako esperientziak enpatia areagotzen dutela sinestuta baitaude (migratzaileen errealitatea gerturatu, hezkidetzarik gabeko esperientziak jasan dituztenak, arrazakeria pairatu dutenak, e.a....).
- Proiektuetara gaztetxoak hurbiltzeko aukerak ematea. Izan ere, egun egiten diren proiektukako ikasketetan edo ikasketa-zerbitzuak deiturikoetan, adibidez, eskertuko lukete zuzeneko esperientziak partekatzeko aukera.

6. Eztabaida talde eta elkarrizketetatik ateratako ideiak

Inkesta burutu eta aztertu ondoren, 93 erantzun hauek osatze aldera **ikastetxe ezberdinetako hainbat irakaslerekin eztabaida taldea burutu genuen ekainak 14ean** eta hurrengo egunetan, **elkarrizketa sakon batzuk burutzea ere** erabakitzen da.

Burutu diren ekimen hauetan jasotako emaitza esanguratsuenak biltzen ditugu jarraian. Informazio jasoketa egiteko, bai eztabaia taldean bai eta ikastetxeen elkarrizketan ere, lan eskema hau jarraitu da:

- 1) Inkesten emaitzak partekatu eta lehen inpresioak jaso
- 2) Hainbat galdera zehatz eta sakonak planteatu gaian sakontze aldera

Inkesten emaitzak aurkeztean, hau da, txosten honen hasieran aipatutako emaitzak aurkezterakoan, ikastetxeetako **ordezkari guztiek ontzat ematen dituzte orokorrean**. Bertan agertzen diren emaitzak alde aurretik esperotakoak direla diote eta agian ñabardurak gerora agertuko direla galdera zehatzetan. Baina orokorrean, inkesta emaitzak balekoak direla diote.

Elkarrizketa aurrera doalarik galdera zehatz batzuk planteatzen dira eta jarraian azaltzen dira aipatutakoak:

GGEE arloan (Nazioarteko Aldarrikapenean 30 artikulua direla jakinda eta hainbat gai eratortzen direla handikan) **denak ez direla maila berean lantzen** agertzen da inkesten emaitzetan eta horren arrazoiak bilatzen saiatzen gara.

Berritzegune eta ikastetxeetan ez dago zuzenean GGEEak lantzeko erreferentziatzko arduradunik. Berritzegunetan² adibidez, Bizikidetzeta eta GGEE arloa hezkidetzaren aterkipean sustatzen dira. Bertan irakasleentzat erreferentziatzko profesional bat dago hezkidetzeta arloan (Bizikidetzeta, GGEE, harremanak, e.a.) aholkularitza, formazioa eta baliabideak hurreratzeko.

Impresioa da ikastetxeetan gero eta gehiago lantzen direla GGEEak (bai orokorrean, bai bizikidetzaren ikuspegitik baita hezkidetzatik ere) bereziki tutoretza orduetan. Une honetan **Bizikasiren baitan sortutako baliabideak, ikastetxeetan ongi bideratzen direla** esan daiteke,

- **Jazarpen gaiak asko arduratzen duen gaia da.** Ikastetxeetan tratatu onak lantzea ezinbestekoa da eta ez litzateke tratatu txarrik onartu beharko. Horren guztiaren oinarrian daude GGEEak eta ezberdintasunaren errespetua.
- **Une honetan suizidioa eta osasun mentalaren gaiak ere, arduratzen ditu ikastetxeetako arduradunak** (askotan jazarpenekin zuzeneko harremana baitu). Datuek ardura sortzen dute ikas komunitate osoan, oso datu altuak direlako eta irakasle nahiz gurasoekin egin beharreko lana ere, garrantzitsua ikusten da.

Orokorrean azpimarratzen den ideia bat: “jazartzen ikasi egiten da” ez da gure ohiko jokabidea. Beraz, nahiz eta GGEE arloan lanean aritu, horretan jarraitzea ezinbestekoa da.

Zenbait zentroetan **giza eskubideen inguruan edota gizarte-gaien inguruan erreferentziatzko pertsona bat badago**ela baieztatu digute, pertsona honek sustatzen dituelarik GGEE inguruko gaiak eta ikastetxe askotan gaurkotutako Bizikidetzeta plana eta Bullyingaren Aurkako Taldea (BAT) egon badago.

GGEE urraketatik abiatzen dira askotan jarduera hauek; hau da, diskriminazioan zentratzen dira, pertsona ezberdinek bizi dituzten urraketatik zentratzen dira. **Gizartean presentzia eta notizia bihurtzen diren GGEE urraketen inguruan hausnarketa, kontzientziatzea, sortzen dituzten emozio eta ikuspegiak partekatzen dituzte** bai eta kasu askotan, beraien esku zer dagoen partekatzen dute. GGEE denon erantzukizuna dela azpimarratzea ere ezinbesteko ideia dela ikustaraziz.

Askotan azpimarratu den beste ideia bat da, GGEE urraketa horien protagonistak ikastetxeko kideak beraiek direla. Hau da, **urraketa hori gertutik bizi dituzten pertsonen errealitatetik** abiatzen saiatzen dira inplikazioa lortzeko. Migrazioaz ari badira, LGTB+ kolektiboari buruz, partaidetza, hizkuntza eskubideak, aldaketa klimatikoak herrialde ezberdinetan izango duen eragina, e.a. ikastetxeko errealitatea ikustarazten saiatzen dira. Adibidez, ijitoen komunitate bat baldin badago ikastetxean, errazagoa da ijito komunitatearengana gerturatu eta bizi dituzte GGEE urraketen inguruan hitz egitea; gauza bera gertatzen da bestelako kolektiboekin. Edo beraiek bezalako atzerriko ikasleekin harremana izaten dute “Erasmus+”, “eTwinning” eta antzeko programen bidez, eta hauei esker, gai ezberdinak jorratuz beste herrialdeetako errealitatera gerturatzen dira (aukera ona da batzuk eta besteek dituzten aukera eta mugak ezagutzeko, adibidez).

Oso esanguratsuak dira zenbait esperientzia, non zentroetan gai hauek lantzeko ikasleez osatutako taldeak sortzen diren, adibidez, talde feminista, maskulinitateen lanketarako; LGTBI taldea, etab. Era horretan, nerabe eta gazteek berak sustatzen dituzten ideiak eta

² Berritzegune: *Zonaka edota lurraldeka erabiliko diren zentroak dira hezkuntzaren berrikuntza eta hobekuntzarako, eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetara zuzendutako Laguntza Zerbitzu gisa jardun dute. Une honetan eraldaketa prozesu batean daude.*

proposamenak dira prozesuaren muina (irakasle baten gidaritzapean) eta bere bizipen propioez betetzen dira lanketak, euren gaitasunez aparte, bizi-osorako aktibismoa eta konpromisoa ere sustatuz.

GGEEak lantzen hasi ziren garaian, susmoa dago urrutiko gertakarietan zentratzen zirela baina egun, **bertako errealitateak pisu handia hartu duela**. Hala nola, adibideak jartzen dira: futbolearen izan diren arrazakeria gertakizunak, bullying kasuen ondorioak (arrazoi edo iturburu ezberdinetako kasuak), e.a.

Dena den, **inklusio** hitza gehiagotan nabarmentzen da ikastetxeen ordezkarien ahotik. Ezberdinen errealitatea ikustarazi, pertsonak bizitzeko dituzten eredu ezberdinak aurkeztu eta hauekiko errespetuan eta onespenean zentratzen dituzte esfortzuak. Adierazten den mezua argia da: **“denak ezberdinak gara baina GGEE berdinak ditugu”**.

GGEE arloan, **indarkeria politikoak eragindako urraketen inguruan lanketa egitea oraindik kostatzen dela argi uzten da**; eztabaida taldean adibidez, hasieran irakasleak isilik geratzen dira eta ondoren, berriz ere galdetu ostean, gaiari heltzen diote. Bakarkako elkarrizketetan, gaiari heltzen zaio beraien esperientzia partekatzeko. Batzuen eta besteen aburuz, ausardia puntu bat behar izan zen eta ikastetxe batzuk autua egin zuten duela urte batzuk gai honi ere garrantzia ematerako eta beste batzuk ordea, ez zuten asmatu nola egin.

Indarkeria zuzena nabarmenago zegoenean irakasle batzuk bakarrik hasi ziren moduzuzenean gaia lantzen. Ez zen erraza eta askotan **ez ikastetxeak ez eta Ikas Komunitateak ere ez zuten babesten moduzabalean**. Hortaz, irakasle batzuk bere kabuz hasi ziren pausuak ematen (ez zuten oztoporik izaten ikastetxearen aldetik baina ez zen eskolaren kurrikulumean lantzen zen gaia). Garai gogorra izan zen baina errazagoa zen ikasleek zertaz ari ziren jakin bazekitelako; egunerokotasunean bizi zitekeen, herrian edo garaiko komunikabideetan agertzen ziren berriak. Irakasle zehatz batzuk horiek lantzerantz animatu ziren.

Orain, batzuk urtero lantzen dute ekimena **Eusko Jaurlaritzaren “Adi-adian” edo “Herenegun” proiektuen bidez** (errazagoa baita instituzio batek dagoeneko eskainitako programen baitan burutzea). Horrelako programetan, **testigantza zuzenak duten indarra eta enpatia sustatzeko gaitasuna** azpimarratzen da, egoera latzetan egunerokotasunean aurrera egin dutenen hitza entzutea, eraldatzailea da; biktimario ezberdinetako biktima hauek asko transmititzen dutela argi geratzen da, gure gertuko historia ezagutzeko baliagarria dela esaten da eta ikasleek horrelako ekimenak merezi dituztela ere esaten da. Izan ere, gaur egungo gazteek ez dute indarkeria garaien berri eta garrantzitsua da ikustaraztea, indarkeriaren ondorioetan sakontzea eta garai hartatik ikasitakoa beste alorretara zabaltzea.

Honekin batera ere, elkarrizketatutako **irakasle batzuk aitortzen dute biktimen testigantza jasotzearekin bakarrik ez dela nahikoa** benetan gaiari heltzeko: testigantza ondo artatzeko, testuinguruaren lanketa ezinbestekotzat jotzen da eta horretarako material eta ekintza falta aipatzen dute. Eskolaren batean ikasleek duten ezagutzatik abiatzea proposatzen dute, gatazkaren inguruan dakitenak bilduz edota etxekoei elkarrizketak egiteko aukerak sustatuz.

Indarkeria politikoa lantzen dutenen artean askok kristau eskolako sareko eskolak ziren. Honetaz galdetuta, eskola hauetako irakasle batzuk aipatu zuten balioen lanketaren bidez iristen direla indarkeria mota honetara, barkamena eta adiskidetzera ere landuz. Era berean, kristau eskolako ikastetxeek harremana izan ohi dute sare batzuekin, non elkarrekin eta bestelako baliabideak badauden: hau da, kristau eskolek orohar giza eskubideetan eta kaltebera egoeran daudenekin lan egiten dituzten eragileekin harremantzeko lotura zuzena eta organikoak izaten dituzte, hemen erraztasunak eraikiz zenbait gai jorratzerako orduan.

Eskola batzuetan, adibidez, Bakearen Astearen bidez lantzen da motibazio politikoko indarkeriaren gaia.

GGEEak nahiz indarkeria politikoaren eragina lantzeko unean, **ikasgai ezberdinak erabili izan dituzte: historia, euskara, erlijioa, tutoretza, e.a.** ez dago ikasgai zehatz bakarra eta irakasleen aburuz, nahi izan ezker, aukera badago hainbat ikasgaien bidez lantzeko. Horrek ere, **eskolako kurrikulumean txertatzea ahalbidetzen du** eta ardura irakasle askoren esku uzten du. Kasu batzuetan hor dago ahultasuna, irakaslearen sentsibilizazio mailaren arabera sakontzen baitira gai batzuk edo besteak; eta ikastetxe batzuetako irakasleen egonkortasun tasa baxua da (urtero batazbesteko irakasle aldaketa altua den ikastetxe batzuetan, eskuhartze eredian ere ez dago egonkortasunik, e.a.).

Egon badaude ere adibidez hizkuntz gaitasunen bidez lantzen dituztenak, hala nola, gaztelaniazko hizkuntza ikasgaien giza eskubideen urraketa inguruko gaian oinarritzen dute idazmen gaitasunaren lanketa.

Horrekin batera esanguratsua da ere **bere proiektuetan zeharka sartzen dituztenak**: adibidez, informatika ikasleekin lanketan errealitate birtualeko lanerako giza eskubideak izan ziren solasgai, edota bidezko merkataritza eta horri lotutako giza eskubideen defentsa sartzen direnean merkataritza eta administrazioarekin harremandutako ikasgaietan.

Bestalde, **ikastetxe batzuen ahulezia ere aipatzen da**. Hau da, GGEE zuzenean tutoretza bidez e.a. lantzeaz haratago, **eskola beraren antolakuntzak erraztu edo zaildu egiten du gaia bera lantzea** eta tratu onen eredian bizitzea, esperimintatzea. Ikastetxe batzuetan GGEE, bizikidetza, tratu onak, e.a. lehenetsunekoak diren bitartean (bai ikasgai bezala, bai eta harremanetarako eredu gisa), susmoa dago ikastetxe batzuetan zuzendaritzaren lidergotza ez dela argia, irakasle bakoitzak ahal duena egiten duela bereziki “klase zailetan”, prozedurak ere ez daudela argi eta egoera oso larri jarri arte ez dagoela eskuhartzerik; edo alderantziz, beldurra nagusi denean, edozein gertaera kasu zail/arazo bilakatzen dela. Horrek guztiak bizikidetza arloa ahuldu egiten du, **ez baitago irizpide bateraturik, irakasle eta ikas komunitatean elkarrekin lan egiteko joerarik ere ez** eta hortaz, nahiz teoriarik landu, bizipenetan ez dago tratu onerako girorik. Eta GGEE eta bizikidetza zer den ikasteko modu onena, eredu horretan bizitzea da, kontziente egitea eredu zehatz hori dela harremanetarako nahi duguna eta behar duguna.

Baliabideei dagokionean, garrantzitsua ikusi dugu jakitea, noren bidez lortzen dituzten ikasgaiak erabiltzen dituzten baliabideak. Eta ikastetxeek erantzun zabala eman diote galdera honi.

Eskolek Bizikidetza plana, hezkidetza plana eta balioen lanketa burutzen dute aspaldidanik. Ikastetxe bakoitzak bere erritmo eta gaitasunetik egiten du lan baina nahiko zabaldua dagoela dirudi. Hamaika baliabide eskuratzen dituzte Eusko Jaurlaritzatik (Berritzegunak tarteko) nahiz bestelako erakunde eta elkarteetatik ere. Hitz egin dugun ikastetxe gehienek badituzte urteetan landutako erreferentziako baliabideak eta urteak joan eta urteak etorri, hasierako baliabide horiek eskura mantentzen dituztenak. Hauen artean hainbat ikastetxeek aipatu dute Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen baliabideak, Unicef erakundearenak, eta Escola de Cultura de Pau-renak.

Une honetan GJHen (Nazio Batuen Agenda 2030) markoaren baitan hamaika baliabide igorri zaizkie Eusko Jaurlaritzari nahiz bestelako elkarte nahiz Federazioetatik. Ikastetxeek gai hauek kurrikulumearen baitan txertatzen saiatzen dira eta horrela, ikastetxean lanketa baitan

landuko direla bermatzen dute. Hortaz, ez da irakaslearen gaitasun edo erabakien esku geratzen den esparrua eskola mailako inplikazioa baizik.

Kristau Eskolako ikastetxeek diotenez, Federaziotik hurreratzen dizkiote baliabide ugari bai eta bakoitzaren kongregaziotik ere bai. Askotan **Pastoraltzako arduradun bat izaten da** eta beraien bidez, **gai hauek lantzen dira modu kontziente eta zabalean**. Gainera, errepikakorra izan da ikastetxe mota hauetan, klaseak hasteko “hausnarketa/otoitza/eguneko leihoa” edo antzeko ekinbide txiki batekin hasten dutela eguna (hausnarketa testu, bideo, abesti edo baliabide bat erabiliaz) eta ohikoa da, GGEE eta bizikidetza arloko gai batekin hastea.

Kasu batzuetan, ikastetxe batzuk, **beren kabuz egindako esperientzia edo eta baliabide bat landu** eta beste ikastetxeentzat eredu garri bihurtzen dira (baliabideak publikatuz, federazio edo erakunde publikoen bidez edizioak kaleratuz; formazioak eskainiz, e.a.). Hau da, ikastetxearen beharra identifikatu ondoren, prozesu bat abian jarri eta baliabide bat sortzen dute beraien ikastetxean txertatzeko. Kasu batzuetan, ikastetxearen mugak gainditu eta beste batzuentzat ere baliagarria dela iritzita, publiko egiten dute materiala, estrategia edo sortutako erreminta.

Beste batzuetan, erakunde publiko (Eusko Jaurlaritza edo udala) edo Ikastetxeen Federazio bati esker, **esperientzia pilotuetan** parte hartzera gonbidatzen dituzte ikastetxe zehatz batzuk eta bertan landutako, probatutako eta sortutako baliabideak, gerora, beste ikastetxe batzuetara igortzen dituzte baliabide gisa. Kasu batzuetan, herri mailako baliabideak ere sortu izan dira bertako eragileen inplikazioarekin ere, horrek izan dezakeen eraginarekin.

Kasuren batean, **baliabide hauek erakunde handietatik jasotzen dituzte** (UNICEF, BBVA, Iberdrola, Educaplay, Like word shee, Antirumores programa, EJren Beldur Barik programa,...). Unitate didaktiko berritzaileak, erreminta/gailu bereziak edo txapelketa interesgarriak sustatzen dituzte erakunde hauek. Batzuetan ikastetxeak horrelako esperientzietan murgiltzen dira eta emaitza (ikasleentzat esperientzia, bizipen, ikasketa prozesua, e.a.) aberasgarria izan dela aipatzen da. Saria batzuetan bidaia da, besteetan ikastetxerako baliabideak, besteetan izen-handiko erakunde bateko kolaboratzaile izendatzea,... elementu hauek ere motibagarriak direla esan daiteke.

Ikastetxe gehienetan, zeharkako lan gisa lantzeaz gain, **egun seinalatuetan, “kanpainatan”, modu berezian ere lantzen dira GGEE urraketak**. Askotan nazioarteko egun seinalatua denez, komunikabide eta bestelako agertokietan, aipamena egiten zaio eta hortaz, eskolak ingurumari hori aprobetxatuz, gai zehatz horri presentzia ematen dio eta landu egiten da: M8 eta genero diskriminazioa, bakearen astea edota abenduaren 10aren inguruko astea, non hainbat gai lantzeko urtero ekintzak sustatzen diren. Berritzeguneetatik ere babesa ematen da horrelako ekimenak sustatzeko.

Gai hauek ikastetxeetan txertatzen doaz baina modu ezberdinetan dihardute ikastetxeek. Izan ere, **eskolaren dimentsioek erraztu edo zaildu egiten dute horrelako ekimenen sustapen bateratua**. Ikastetxe txiki batean errazagoa da gai berdina maila guztietara modu koordinatuan zabaltzea, ekimen bateratu bat burutzea, e.a. Eta bestalde, ikastetxe handietan, ziklo zehatz bakoitzean arlo bati ematen zaio lehentasuna eta mailaka lantzen da ikastetxe osorako ekinbide berdina planteatu gabe.

Eskola barruan ere, **ikas komunitateko kideak bizikidetza arloan elkarrekin egiten dute lan** Behatokia eta antzeko koordinazio esparruetan (ikasle, irakasle, eskolako langile eta gurasoek parte hartzen duten erreferentziazko espazioa). Bizikidetza Plana ikastetxe guztiek indarrean izan behar duten egitasmoa da, behatokiak egitea bermatu behar du eta bertan agertzen dira

eskolako lan ildo nagusienak (GGEE, bitartekaritza esparruak, adostokiak, behatzaileak, bitartekariak, ausarten klubak, Ikasle Laguntzaileak eta antzeko estrategien lanketa tarteko).

GGEE en inguruko lanketa, **herriko beste eragileekin lantzen duten ikastetxeak** ere egon badaude. Hau da eskolaz gaindi bideratzen dituzte beste kolektibo eta erakundeekin elkarlana eta aliantzak sustatuaz. Izan ere, herri gehienetan elkarte eta bestelako erakundeak daude (adinekoen egoitza, urritasuna duten pertsonen elkarteak, ezintasun fisikoa duten pertsonen zentroak, e.a.) eta elkarlan interesgarriak ezagutu ditugu ikerketa hau burutzeko orduan. Ikastetxeek beraien kurrikulumaren baitan, zikloka, eragile ezberdinekin elkarlana egiten dute. Modu honetan, ikastetxeek herrian bertan dauden beste eragileekin egiten dute lan **ikuspegi komunitarioan sakonduz**. Aipatzekoa da bestalde, prozesu hauek ez direla beti arrakastatsuak edo ez behintzat, epe luzera. Kasuren batean, esperientzia pilotuak ez du aurrera egin edo epe zehatz batean bakarrik burutu ahal izan da esperientzia arduradunak eta bestelako baldintzak aldatu direlako. Baina herri/bailara mailako saretze ikuspegia interesgarria dela uste da.

Egon badaude ikastetxe batzuk, astialdiaren ikuspegitik espazioak sustatzen dituztenak eskolaren baitan bertako ikasleekin; hau da, **eskolaz kanpoko jarduerak burutzen dituzten gazte taldeak dituzte eskolaren barruan** (asteaz zehar elkartzen dira baita asteburuetan ere, kasu batzuetan). Batzuk orokorrean, balioetan hezteko helburuarekin maiztasun ezberdinekin elkartzen dira, beste batzuk, gai edo arlo baten inguruan zentratzen dira gehiago (lurralde txirotuekiko sentsibilitatea sustatzeko taldeak, euskararen erabileran, balioak orokorrean sakontzeko taldeak, adibidez). Huetan guztietan, GGEEen inguruan eta pertsonen aukera berdinen inguruan hausnartzen dute eta ekimenak burutzen dituzte ikastetxean gainontzeko ikasleei zuzendurik. Talde hauek batzuetan udan ere garatzen dituzte udako ekintzak (udaleku eta kanpaldi ezberdinak bai eta nazioarteko esperientziak ere, urtean landutakoari beste ikuspegi bat eskainiz).

Ikastetxeek **heziketarako erabilitako metodologia berritzaileak** ere eragina daukate GGEEen bizipenetan. Horrela proiektuak lan egiten duten ikastetxeak, ikasketa zerbitzuak, ikasketa kooperatiboak eta antzeko estrategiak darabiltzaten ikastetxeak urtetik urtera gehiago dira. Metodologia huetan, ikaskideen arteko harremana, elkarlana, gaitasunen ezberdintasunak agerian jarri eta abiapuntu horretatik burutzen dute ikasketa prozesua. Hori bera ere, eraginkorra eta eraldatzailea bihurtu da.

Aipatzen beste **estrategia bat "errutinak" dira**. Hau da ikastetxearen egiteko moduan, hainbat jarduera egunerokotasunean txertatzen dira inplikazioa bai irakasle nahiz ikasleengandik ziurtatuz. Eskuhartze hauen artean daude hainbat estrategia (eta askotan tutoretza saioetan burutzen direnak, eskolako ia irakasle guztiei inplikatu): maitasungramak, aprezioa adierazteko dinamikak, emozioen errondak eta dinamikak, eta maila sakonago eta landuago batean, giza liburutegiak. Horrelako dinamikak egunerokotasunean txertatzeak, ikasleengan kontzientziazio bat suposatzen du, ikaskideen arteko aniztasunaz jabetu eta guztiekiko errespetua eta onespena areagotuz.

Hortaz, ikastetxeek printzipioz, eskolako markoan aintzat hartu behar dituzte GGEE, bizikidetzaz eta elkarrekin bizitzeko estrategiak eta ildo eta esparru ezberdinetatik burutzen dituztela agerian geratzen da.

GGEE lantzerako orduan hainbat ikasketa atera dituzte eta aurrera begira aintzat hartzeko ideia batzuk partekatuko ditugu jarraian. Izan ere baliabide berriak sortzeko unean aintzat hartu beharreko elementuak identifikatzea eskatu diegu.

Baliabide motari buruz galdetzean, agerian geratzen da Federazio ezberdinek hurreraturiko baliabideak egokiak, anitzak eta interesgarriak direla. Hala ere, **beren kabuz baliabideak bilatzen hasten direnean, hainbat zailtasunekin topatzen dira:**

- Denbora asko eskaini behar izaten zaio material bilaketa edo eskolan jasotzen dena lehenesteari.
- Euskaraz kalitate onezko ikus-entzunezko erreminta eskasak dira.
- Metodologia berritzailea denean, gelako eremutik kanpo egitea hobesten denean, denbora gehiago behar izaten da, baliabideak, espazioak e.a. lortzeko eta beti ez daude eskuragarri: antzerkia edo rol playing-a erabiltzen denean, adibidez.

Besteetan, **elkarte batzuk gerturatu izan dira ikastetxeetara baliabide zehatzak eskaintzera.** Interesgarria dela aurreratuz, hainbat ideia aintzat hartzea iradokitzen da:

- Ikastetxeak GGEE arloan lanean dihardu modu ezberdinetan. Beraz, aldez aurretik egin den lana aintzat hartu.
- Une honetan gai batzuk lantzeko eredia berrikustea komeni da. Hainbat mutiko gaztek, berdintasunari dagokion lanketaren aurrean, adibidez, jarrera itxia duela esan liteke, gaia planteatu denean erantzule eta biktimario sentitu izan baitira eta ez dute ulertzen, mezua urruti sentitzen dute edo beraien kontrakoa dela diote. Hortaz, eskuhartze hauen aurrean jarrera kontrajarria izaten dute.
- Ikastetxe batean eskuhartze bat egiteko modurik errazena, kanpaina baten bidez egitea izan daiteke. Nazioarteko egunaren “aitzakiarekin” baliabidea garaiz aurkeztu eta ikastetxeak agian burutu dezake.
- Planteatzen diren ekimenak bereziki praktikoak izatea eta ikasleen esperientziatik abiatzea eskertzen dute (errazago iristeko modua baita). Egun bateko txangoarekin ere lotzen dute eskuhartzea eraginkorra izatea. Horrelako ekimenak eraldatzaileak izan ohi dira baina ekintza hauen ahultasuna arlo ekonomikotik dator, ikasle eta ikastetxe guztiek zin baitute aurre egin horrelako gastuei.
- Ikastetxeen errealitate fisikoan zentratzea garrantzitsua da (behar diren baliabideak, espazioak, e.a. ikastetxeetan egotea, adibidez).
- 6 orduko prozesuak izatea gehienez ere (2 orduko 3 saio, adibidez).
- Irakasleei formakuntza ere eskaini dakioke egitasmoa modu egokian garatzeko (baina eskaintza honek badu bere arriskua: irakasleak formakuntza beharrean egon arren, formazioari eskaintzeko duten denbora mugatua da).
- Eskolari maiatzean edo ekainean aurkeztu behar litzaioke hurrengo ikasturterako proposamena; nahiz jakin, 2. eta 3. hiruhilabeteetan garatuko dela, ziurrenik. Baina horrek plangintzan lana erraztuko du.
- Erroka handia dago taxuzko baliabideak euskaraz izateko: bideo motzak, pelikulak, erreferentziatzko liburuak, e.a. une honetan eskasia handia dago arlo honetan. Horregatik proposatzen dute baliabideen kaxa bat sustatzea: bai sare sozialetan topa daitezkeen baliabideen zerrenda batekin, bai eta bestelako eragileek GGEE ezberdinak lantzeko sortutako baliabideen gida gisa.
- Ikas komunitateek “jakintzu” edo “aritu” ezberdinen erreferentziak eskatzen dituzte ikastetxean eskuhartze, formazio eta kontrasteak burutzeko.

7. Ondorioak

Aurreko datuak kontutan hartuta, argi dago **Euskadi mailako ikastetxeetan giza eskubideen defentsa eta ezagutza sustatzen dela**: parte hartu dutenen artean ia denek ekintza ezberdinen bidez sustatzen dituzte giza eskubide arloko lanketak, adin ezberdinetan eta, oro har, ikastetxe mailan sustatuta, nahiz eta argi dagoen ere irakasle baten bultzadak izan dezakeen eragin positiboa gai hauek lantzeko orduan.

Gaiak begiratu, **desberdinkeria edota diskriminazioa dira nagusi**: emakumeekiko diskriminazioa lantzen da era zabal batean, eta pertsona migrante eta errefuxiatuen errealitatea ere presente dago eskoletan gaur egun. Horiekin batera, beste motako desberdintasunak ere agertzen dira: LGBTIQ+ taldekoa, aniztasun funtzionala, etab.

Aldiz, gurean ere garrantzi handikoak izan diren **politikarekin loturiko bortizkeriaren ondorioak ez dira lantzen**: elkarrizketetan argi dago zailtasunak nabari direla. Era berean, landu egiten denean instituzioek sustatutako programa oso zehatzen bidez egiten da (Eusko Jaurlaritzaren Adi-adian programa, adibidez) eta urtero horretan aritzen direnek ere onartzen dute motibazio politikoko indarkeria eta terrorismoaz klasean aritzeko material eta metodologiaren beharra badutela.

Giza eskubideen lanketarako **bertako eta kanpoko adibideak** eta gaiak jorratzen dira eta maiz hori egiteko **elkarte ezberdinekin lankidetzan aritzen dira**, edota elkarte horiek sustatutako materialak baliatuz. Baina eskoletatik ere ikusten dugu lankidetzaren hori era zabalago batean edo prozesu moduan egiteak (eta ez puntualki) bermatzen duela ekinbidea benetan eraldatzailea izatea.

Teoriaz haratago, egungo irakasleek **barne lanketa sustatzen dute** gai hau jorratzerakoan, ikasleen jarrerak eta **jokabide arduratsuak** sustatzen direlarik.

Giza eskubideak **orohar kurrikulumetan** sartuta edota zeharkako moduan kontutan hartuta daudela agertzen da: askotan egun zehatzen inguruan edota **zenbait gune berezietan** (tutoretza orduetan, adibidez) lantzen dira. Eta kasu batzuetan **irakasleen esku dago**, beraien sentsibilitatearen esku eta ikastetxe batzuetan daukaten mugikortasuna kontutan izanik, zaila izan daiteke horrelako programa bat txertatzea ikastetxe mailan. Hala ere egon **badira ikastetxe bakan batzuk, bizikidetzaren eta GGEEak beraien ikur egiten dutenak** eta modu sistematizatuan lantzen dituztenak.

Aurreko guztia kontutan hartuta, beraz, argi dago elkarte eta ikastetxeen arteko **lankidetzaren sustatzearen jarraitu behar dugula**, bai eta lan hori prozesu eta era iraunkorrago batean mantentzeko apustua egin behar dela. Dagoeneko ondo lantzen diren gaiekin batera, hala nola desberdintasunak edo diskriminazioak, **pendiente ditugun beste gaiei ere ekiteko unea** izan daitekeela esan liteke, bereziki gure herrian bizi izandako motibazio politikoko indarkeriaren ondorioak (eta horretarako, irakasleei horretarako materialak eta proposamenak luzatuz eta bideak irekiz).

GIZA ESKUBIDEEN LANKETA IKASTETXEETAN

Eskubidez, Giza Eskubideen Hezkuntza elkartearen sareak eta txosten hauek ditugun elkartegintzako eragileok partekatu dugu hurrengo kezka edota gogoeta: Elkarte ezberdinek hainbat baliabide eskaini izan dizuete ikastetxeei Giza Eskubideen inguruan lanketa egiteko, besteetan berritzegune eta zuen Federazioek urreratu dizuete.

Ikerketa honen bidez, baliabide horien egokitasuna eta zuen aukerak aztertu nahiko genituzke. Eskertzen dugu aldeztatik eskaintzen diozuen denbora tartea. Azken 5 urteetan bizi izandako esperientzian zentratzea gustatuko litzaiguke (2017-2018 ikasturtean hasita).

Ikerketa honetan jasotako datuak ez ditugu publikoki partekatuko. Emaitzak landu eta parte hartu duten ikastetxeei helarazteko zaizkie eta aurrerago, hausnarketa partekatua egiteko asmoa legoke.

Edozein zalantza izan ezkerok gurekin harremanetan jartzeko: info@baketik.org edo telefono honetara deitu 685720032 (Maidar)

1. Ikastetxearen izena *

2. Lurraldea *

Marca solo un óvalo.

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa

3. Zurekin harremanetan jartzeko emaila *

4. Ikastetxe mota *

Marca solo un óvalo.

- Eskola publikoa
- Ikastolen Federazioko kide
- Kristau Eskolako kide
- Besterik

5. Ikasmailak *

Marca solo un óvalo.

- Lehen Hezkuntza (LH)
- Bigarren Derrigorrezko Hezkuntza (DBH)
- Bi etapak

6. Giza Eskubideen alorra lantzen duzue ikasleekin? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez *Salta a la pregunta 34*

7. Ikastetxean Giza eskubideak lantzen dituzula diozu....

- Giza eskubideen ezagutza
- Diskriminazioa (generoa)
- Diskriminazioa (arrazakeria: ijitoak, jatorri ezberdinetako kideak,...)
- Diskriminazioa (gaitasun funtzionalak)
- Diskriminazioa(LGTBQ+)
- Bizitzarako eskubidea
- Ikasteko eskubidea
- Motibazio Politikoko Indarkeria eta Terrorismoaren inguruko gaiak ("Euskal Gatazka" deiturikoa)
- Adierazpen askatasuna
- Gizarte eskubideak (etxebizitza, osasun zerbitzua, lana,...)
- Migrante eta errefuxiatuen eskubideak
- Erlijio askatasuna
- Otro: _____

8. 1 Giza eskubideen ezagutza zertan datza?

4

.

- Bereziki alderdi teorikoa edo eta ezagutza lantzen ditugu
- Bereziki gaitasunak edo eta alderdi praktikoak lantzen ditugu
- Biak

9. 1 Nongo Giza Eskubideak lantzen dituzue?

- Bertakoak lantzen ditugu bereziki
- Beste herrialdeetakoak lantzen ditugu bereziki
- Biak lantzen ditugu

10. Giza Eskubideak lantzen ditugun formatoa

- Urteko egun seinalatueta
- Urtean zehar programa gisa
- Tutoretza planetan edo kurrikulumaren baitan
- Otro: _____

11. 1 Giza eskubideak lantzen ditugu:

7

.

- Ikastetxearen baliabide eta irakasleen eskutik
- Beste ikastetxe batzuekin lankidetzan
- Berritzegune edo eta gure federazioek urreraturiko baliabideak erabiliz
- Elkarte batekin lankidetzan
- Gure kabuz, elkarteek urreraturiko baliabideak erabiliz
- Erakunde publikoek sustatutako programaren baitan
- Gure kabuz, erakunde publikoek urreraturiko baliabideak erabiliz
- Otro: _____

12. 1 Giza Eskubideak lantzen dira:

8

.

- Ikastetxearen apostu irmoa delako
- Irakasle bakoitzaren lehentasun eta boluntariorzatik abiatzen da

13. Giza Eskubideen arloa klasean zuen ikasleekin jorrazeko, zenbateko formakuntza/prestaketa edo gaitasuna duzuela uste duzu? *

- Gaitasun handia daukat
- Nahiko gaitasuna daukat
- Ez naiz oso ziur sentitzen gai hauek lantzeko
- Ez dut nire burua gai hauek jorrazeko gai ikusten

14. Jasotzen dituzuen baliabideen balorazioa

- Programa edo baliabide gehiegi jasotzen ditugu
- Programa edo baliabide gutxiegi jasotzen ditugu
- Gure beharretara egokitutako materialak dira
- Ez daude gure beharrei egokituta
- Baliabideak ez dira garaiz iristen

15. LH eta DBH mailak dituzuen ikastetxeetan, Giza Eskubideak lantzeko orduan, etapek garrantzia al dute?

- Bereziki LHn lantzen dira
- Bereziki DBHn lantzen dira
- Bietan berdintsu

Giza Eskubideak ez dituzuela lantzen diozuenez, galdera hauek erantzutea eskertuko genizueke

16. Zergatik ez dituzue Giza Eskubideak lantzen? *

Bukatzeko ...

17. Zer eskatu zenieke Giza Eskubideetan lanean diharduten elkarteei?

18. Orain duzu aukera zure iritzia, eskaera edo nahi duzuna gurekin partekatzeko. Eskerrik asko zure erantzunengatik
